



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU
)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Neptuno berreraiki, -a artikulua
kalkulatzeko: euskal inesibo
singularraren diakronia eta
berreraiketa metodoaren
dibulgazio saio bat**

Julen Manterola

121-127 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.01.16>



Neptuno berreraiki, *-a* artikulua kalkulatzeko: euskal inesibo singularraren diakronia eta berreraiketa metodoaren dibulgazio saio bat

Manterola, Julen

Euskaltzaindia, UPPA
julen.manterola@ehu.eus

Laburpena

Bi eginkizun ditu artikulu honek: batetik, berreraiketa morfologikozko ariketa baten berri ematea; bestetik, zientziaren alor ezberdinetan pentsatzeko moduak berdinak izan daitezkeela erakustea, are itxuraz urrun diren hizkuntzalaritza diakronikoan eta astronomian. Euskarazko inesibo singularreko sintagma zenbaitetan, hala nola *lanean*, *hitzean* eta halakoetan irregulartasun bat dugu, *-e-* epentetikoak: inoizko kontsonante desagertu baten lekukotzat hartu ohi da, eta *-gan* berreraiki izan da inesibo singularra; bestelakoa da hona dakardan azalpena. Era berean, Uranoren orbitan irregulartasun zenbait deskribatu zituzten astronomoek: hastapeneko bestelako proposamenak baztertuta, planeta ezezagun baten lekukotzat hartu zituzten, eta gaur Neptuno deitzen dugun planeta hor zegoela kalkulatu.

Hitz gakoak: euskal inesibo singularra, berreraiketa, epentesia, Neptunoren aurkikuntza

Abstract

The aim of this article is twofold: on the one hand, I put forward a case of morphological reconstruction; on the other, I show that the way we think about very different scientific problems can be very similar, even in fields as distant as diachronic linguistics and astronomy. There is an irregularity in Basque inessive phrases such as lanean, hitzean, namely the epenthetic -e-: it is usually considered to be the effect of a dropped consonant; I offer here an account of the problem that differs from the traditional -gan reconstruction of the inessive postposition. Likewise, astronomers in the 19th century had described some irregularities in Uranus' orbit: these irregularities were treated as evidence in favor of the existence of a then unknown planet, the planet we now call Neptune.

Keywords: Basque inessive singular, reconstruction, epenthesis, the discovery of Neptune

*Would it not be admirable thus to ascertain the existence
of a body which we cannot even observe?*

Jean Élias Benjamin Valz¹

1. Sarrera. Irregulartasunen garrantzia berreraiketan eta ikerketan oro har

Gauza onartua da euskal deklinabide mugatua, hots, artikuluduna, erakusleen gramatikalizazioz sortua dela. Gramatikalizazioa prozesu diakroniko bat da, zeinetan unitate lexikoak gramatikal edota gramatikalak gramatikalago bilakatzen diren, maiz materia foniko eta zehaztapen semantiko zenbait bidean galduta/aldatuta². Honela azaltzen du Mitxelenak (1961-1977: 213), erakusle sintagmetatik, *etxearen* eta *etxeari* moduko sintagma definituen jatorria:

- (1) a. *etxe haren* > *etxearen*
b. *etxe hari* > *etxeari*

Inesibo singularrean, bukaera kontsonantikoa duten lexemetan, irregulartasun bat dugu: *-e-* epentetiko bat agertzen da. *Lan* hitzaren singularreko deklinabide artikuludun oinarrikoa bildu dut

¹ Astronomo frantsesa; 1835eko gogoeta, Halley kometaren orbitaren irregulartasunak azaldu nahian zebilenean (*apud* Grosser, 1962: 51).

² Adibide gisara, frantsesezko *chez* hitza ekar daiteke gogora: latinezko *casa* ‘etxe’ izenetik dator eta preposizio (unitate gramatikal, beraz) bilakatu da latin modernoan den frantsesean, fonetikoki aldatuta eta esanahia ere zabaldua: ‘-en artean’, ‘baitan’ adierazteko ere erabil daiteke, cf. adibidez *chez les femmes* ‘emakumeen artean’.

(2)-ko adibideetan,³ (2a)-n irregularitasunik gabeko absolutibo, ergatibo, datibo eta genitibo sintagmaena, (2b)-n haiekiko irregularra den inesiboarena:

- (2) a. ABS *lana*, ERG *lanak*, DAT *lanari*, GEN *lanaren*
b. INES *lan-e-an* (***lanan*)

Berebiziko garrantzia du (2b)-ko irregularitasun horrek deklinabide mugatuaren berreraiketarako. Honela diosku Traskek, hizkuntzalaritza diakronikoan halako irregularitasun edo txandakatzeek duten balioaz ari denean:

Alternations in the forms of particular stems or affixes are very frequent in the languages of the world, and in most cases such alternations result from the application of regular phonological changes to what were originally non-alternating morphemes. *This makes alternations particularly profitable targets for internal reconstruction.* (Trask 2015: 238; etzana nirea, JM)

Ondoko ataletan, inesiboetako irregularitasun horren inguruan sortu den eztabaidaren berri emango dut. Hala berean, irregularitasunen garrantzia nabarmentzeak euskal hizkuntzalaritza diakronikotik harago jotzeko aukera emango dit, eta astronomiaren alorreko kasu klasiko bat ekarriko dut hona: Neptuno planetaren aurkikuntzaren abiapuntuan ere matematikoentzat kezka ziren irregularitasunak ditugu. Izan ere, Neptuno izan da kalkulu matematikoetan oinarriturik aurkitu den planeta bakarra.

2. Arloa zertan den. Jacobsenen berreraiketa eta planeta ezezaguna

2.1. Epentesiaren motibazioaren bila

Arestian deskribaturiko epentesiaren irregularitasun hori azaltzeko asmoz, Jacobsenek (1977), de Rijkek (1981: 89-95), Traskek (1997: 202-203) eta berrikiago Etxeparek (2013) argudiatu dute inesibo singularreko sintagmak ez direla, jatorriz, paradigma mugatukoak; hau da, *etxean*, *lanean* eta halakoetako *-a-* ez dela artikulua, analisi sinkronikoetan edo euskara modernoaren gramatiketan hala zehazten badugu ere.

Inesibo singularreko epentesiaren motibazioa zein zen bilatu nahi zuten autoreok. Euskal deklinabidean, ezaguna da *-e-* epentetikoa bi kontsonanteren artean agertu ohi dela. Garbi ikusten da hori paradigma mugagabea, hots, artikulugabea. Halaxe dugu kontsonante bukaera duen *Paris* izenari inesiboko *-n* gehituta (3a), eta orobat gertatzen da hastapenean kontsonantea duten beste kasu marka edo postposizioekin, hala nola *Julen* izen bereziaren ergatiboan (3b) eta baita *lan* moduko izen arrunten ablatiboan (3c) zein adlatiboan (3d) ere. Bokal epentetikoa beti dago kontsonantez (C) inguratua, honela: C-e-C.

- (3) a. *Paris* + *-n* = *Paris-e-n* (***Parisn*)
b. *Julen* + *-k* = *Julen-e-k* (***Julenk*)
c. *lan* + *-tik* = *lan-e-tik* (***lantik*)
d. *lan* + *-ra* = *lan-e-ra* (***lanra*)

Jacobsenek azaltzen digunaren arabera, *atalean*, *hitzean*, *ibarrean* eta *lanean* bezalako sintagmetan ere ikusten ez den kontsonante bat behar dugu postulatu: **lan-e-Can*. Diakronian ohikoa den terminoa erabiliz, kontsonante bat *berreraiki* behar dugu inesibo singularreko sintagmetan eta **lan-e-Can* > *lan-e-an* aldaketa proposatu. Galdera berehalakoa da: zein da kontsonante misteriotsu hori?

Jacobsenen ustez, eta aldeak alde hari jarraitu diote de Rijkek, Traskek eta Etxeparek, *-gan* berreraiki behar da inesibo singularreko sintagmen atzizkia (4); euskara historikoan dokumentatuta dago VgV > VV aldaketa, bokalarteko /g/ belar ahostunaren ahultzea eta galera. Horrela, orain arte azalduko arauak betez, bokalez bukatutako izenetan ez da irregularitasunik ikusten (4a), baina bai kontsonantez bukatutakoetan (4b):

- (4) a. *etxe* + *-gan* = **etxe-gan* > *etxean*
b. *lan* + *-gan* = **lan-e-gan* > *lanean*

Analisi horren arabera, izen bizidunen inesiboan forma osoan iraun duen *-gan* bera da bizigabeetan ageri dena, eta *lagun-a-ren-gan* edo *ama-gan* moduko sintagmen kide beteak liriteke, jatorrian, gaurko *etxean* (< **etxegan*) edo, kontsonante bukaeradun izenetan, *lanean* (< **lanegan*).

³ Gramatiketan singularreko paradigmaman biltzen badira ere, euskalki gehienetan morfologikoki mugagabeak dira adlatiboak eta ablatiboak; orobat partitiboa eta prolatiboa.

Itxuraz, behintzat, aski proposamen erakargarria dirudi Jacobsenenak; funtsean, bi ardatzen gainean eraikia dago:

- Bokalarterko herskari belar ahostunaren galera arrunta da euskaraz: cf. *egin* > *eyin* > *ein* gisako bilakaera ezagunak.
- Izen bizidunen (*lagun, ama...*) eta bizigabeen (*etxe, mendi, lan...*) deklinabidean dagoen zatiketa bateratzen du. Euskara modernoan deskribatzen den banaketa hori azalekoa baizik ez litzateke; aldaketa fonetiko ttiki batek, bokalarterko *g* herskari ahostunaren galerak, ekarri du ustez azalekoa den banaketa hori. Ik. goian Trasken aipua.

Proposamen honen ondorio nagusietako bat hauxe da: inesiboko sintagmetan (*etxean, mendian, lanean...*) ikusten dugun *-a-* ez da artikulua, baizik *-gan* postposizioaren hondar bat.

Nire ustez, *-e-* epentetikoak agerian uzten duen irregulartasunari beste irtenbide bat eman behar zaio. Jacobsenen proposamenaren arazo zenbait zerrendatuko ditut ondoko atalean, eta proposatuko artikularen analisi tradizioaletik azal daitekeela irregulartasuna: artikularen jatorriari begiratzen badiogu, hots, erakusleari begiratzen badiogu, ongi azal daiteke epentesia.

2.2. Urano eta haren orbitaren irregulartasunak

Astronomiaren eta euskal hizkuntzalaritza diakronikoaren bide paralelo honetan, itzul gaitzen orain XIX. mendearen erdialdera, antzeko egoera batean bizi baitziren orduko astronomoak. Data bat jartzeagatik, eraman dezagun gure burua 1840. urtera. Zazpi planeta ezagutzen genituen orduan Eguzki-sisteman: Merkurio, Artizarra, Lurra, Marte, Jupiter, Saturno eta Urano. Planeta horien eguzkiaren inguruko ibilbidea ongi ulertzen zuten orduko astronomo eta matematikoez, baina bazen garaiko ikertzaileei buruhausteak ematen zizkien auzi bat: Uranoren orbitan irregulartasunak zeuden edo, bestela esateko, Uranok ez zuen zehazki betetzen kalkulu matematikoez aurreikusten zioten ibilbidea, behaketetatik zetozen datuek ez zuten bat egiten matematikak esaten zuenarekin. Behar ez zuen tokian agertzen zen Urano.

Irregulartasun horien azalpen bila, izan zen proposatu zuenik eguzkitik hain urrun Newtonen grabitatearen lege unibertsalak ez zuela funtzionatzen, edo beste modu batean funtzionatzen zuela lege horrek (ik. Lyttleton, 1968: 216; egin ziren hipotesien azalpenerako, ik. Grosser, 1962: 46-50). Bide horrek, bistan denez, ez zuen komunitate zientifikoa asetzen. Bada, astronomoek Newtonen legeak betetzeari uztea nahi ez zuten bezala, nik ere ez nuke nahi artikulua artikulatu izateari utz diezaion *lanean* eta *etxean* gisako sintagmetan.

3. Planeta ezezaguna berreraikitzen, kontsonante misteriotsua kalkulatzeko

3.1. Irregulartasunak ulertzen: planeta eta kontsonante galduen bila

Zer izan zitekeen Uranoren orbitan halako irregulartasunak sortzeko bezain indartsua? 1840ko hamarkadan lanean ari ziren John Couch Adams ingelesak eta Urbain Le Verrier frantsesak argi zuten: Newtonen legean “sinestekotan”, masa handiko entitate bat berreraiki... barka, kalkulatu behar zuten. Eguzki-sistemaren miaketaz ari garen honetan, halako masa handia gauza bakar batek izan zezakeen: ordura arte ezezaguna zen planeta batek.

According to my calculations, the observed irregularities in the motion of *Uranus* may be accounted for by supposing the existence of an exterior planet, the mass and orbit of which are as follows [...]. (Adamsek Airyri bidali gutuna, 1845eko urriaren 21ean; *apud* Grosser, 1962: 88)

[I]t is impossible to satisfy the observations of *Uranus* without introducing the action of a new Planet, thus far unknown; and, remarkably, there is only one single position in the ecliptic where this perturbing Planet can be located. Here are the elements of the orbit which I assign to this body [...]. (Le Verrierrek Galleri bidali gutuna, 1846ko irailaren 18an; *apud* Grosser, 1962: 116)

Astronomoen galde-modu hori bera gure aztergaira ekar dezakegu orain: zein entitatek eragin zezakeen euskal deklinabide mugatuan inesiboan *-e-* epentetikoa agertzea? Jacobsenek *-g-* bat kalkulatu... barka, berreraiki zuen, baina proposamen hau ez da arazorik gabea. Zenbait ohar edo galdera egin behar dira proposamen horren eragozpenak zerrendatzeko:

- Arestian esan bezala, Jacobsenen proposamenaren ondorio nagusi bat da *etxean* eta *lanean* gisako sintagmak artikulatu gabekotzat jotzea. Horrek ez du bat egiten sintagma

horien definitutasun efektuez ezagutzen dugunarekin. Horren adibide ona da *etxen/etxean* bikotea. Biak erabiltzen diren hizkeretan, haien interpretazioaren eta erabileraren arteko aldea garbia da (edo izan da tradizionalki): *Peio etxen da* ia modu bakarrean interpreta daiteke, hots, ‘Peio bere etxean dago’; bestelako testuinguruetan, ordea, *etxean* da erabiltzen den sintagma. Bada, hori da, hain zuzen, munduko hainbat hizkuntzatan deskribatu ohi dena: erreferentzia bakarreko izenak uzkurrago ageri dira artikulua hartzeko, edo, bestela esateko, izen bereziak balira bezala jokatzeko dute (suomierarako, cf. Chesterman, 1991: 150, 160 eta Laury, 1997: 259-260; orokortze tipologikorako, Ultan, 1978: 251). Halakoak izan ohi dira ‘eguzki’, ‘ilargi’, ‘aita’, ‘ama’... baina baita testuinguru pragmatiko jakinetan bakartzat hartzen direnak ere; gure adibidean, norberaren etxea da bat eta bakarra dena. *Etxen/etxean* alternantzia, beraz, ongi azaltzen da artikuluen hedatzeari buruz beste hizkuntzetan deskribatu izan denarekin.

- Inesibo singularrari gagozkiolarik, datu garrantzitsu bat ahazten du Jacobsen eta besteren proposamenak: dokumentatuta daude hurbileko inesibo singularrak, hala nola *lasterreon*, *bereon*, etab. Horietan ere *-e-* epentesia dugu (cf. *laster-e-on*), baina ezin dugu Jacobsenen azalpena aplikatu: ezin da *-gan* postposiziorik proposatu, eta balizko **-gon* bat proposatzeak ez du zentzurik, ez baita halakorik izen bizidunen deklinabidean.
- Aintzat harturik *lagunagan* gisakoekin parekatzen dituela Jacobsenek *etxean* (< **etxegan*) eta *lanean* (< **lanegan*) moduko sintagmak, galdera berehalakoa da: zergatik dugu artikulua izen biziduneko *lagun-a-gan* sintagman, baina ez beste horietan?
- Zergatik ez da *-g-* hori izen guztietan erortzen, bizidun izan zein bizigabe izan? *etxe-Øan* azalduko genuke, baina ez dago **lagun-a-Øan* formarik, *lagunagan* baitugu horren orde. Oñederrak (2005: 388) zerrendatzen ditu arazo honen xehetasunak.

Epentesiaren auziak bestelako azalpen bat behar du. Uranoren orbitaren irregulartasunak beste *planeta* batek eragiten dituen bezala (ez haren satelite erraldoi ezezagunen batek, ez talka kosmiko batek), deklinabide artikuludunaren berreraiketan ere *artikuluei* loturiko ezaugarriak nahi ditugu esplikagarri gisa.

Arazoa horrela mahaigaineraturik, erantzuna aski agerikoa da, batez ere jarraian azalduko ditudan bi puntuak aintzat hartzen baditugu. Batetik, gauza jakina da munduko hizkuntzetan artikulua erakusleerik etorri ohi direla (Himmelman, 2001). Hizkuntza erromantzeetan, esaterako, latinezko *illa porta* ‘ate hura’ ereduko sintagmak dira gaztelaniazko *la puerta* edo frantsesezko *la porte* ‘atea’ sintagma artikuludunen sorburu; latinezko *illa* ‘hura.FEM’ erakusleak bere indar deiktikoa — urruntasun adierazpena— galdu, materia fonikoa galdu eta *la* gisa gramatikalizatu da bi hizkuntza erromantze horietan. Euskaraz ere horixe proposatu ohi da: *-a* artikulua (cf. *etxe-a*, *lan-a*...) *a* ‘hura’ erakusleak dator. Bizkaieraz segitzen du bizirik *a* erakusle honek, nahiz eta euskara batuak beste euskalkietako *hura* hartu duen hizkuntzaren eredu estandarrerako.

Bestetik, berebizikoa da ohartaraztea euskal erakusleek *h-* dutela hastapenean (cf. *hau*, *hori*, *hura*, *haiek*, *han*, *haietan*...); erakusleerik hasperen hori, nahiz eta hizkera moderno gehienetan galdua den, orokorra izan da inoiz. Berebizikoa dela nioen, horixe baita gure kontsonante misterioitsua, hasperena.

Horrenbestez, Jacobsenen eta haren jarraitzaileen **etxe-gan* edo **lan-e-gan* berreraiki gabe, bestela berreraikiko ditut nik:

- (5) a. *etxe + han = *etxe-han > etxean*
 b. *lan + han = *lan-e-han > lanean*

Hau da, jatorrizko **etxe han* ‘etxe hartan’ sintagma batetik sortu da **etxehan > etxean* ‘etxean [+DEF]’, erakusleen gramatikalizazioan ohikoa den balio deiktikoaren galerarekin.

Ez da arazo euskara modernoan *hartan* izatea urruneko erakusle inesiboa, eta ez *han*; Lafonek berak esana digu *han* zatekeela forma zaharra, adberbio gisa ihartua geratu dena: “le suffixe *-an* est identique à l’adverbe *an* ‘là’, qui est certainement un ancien inessif du démonstratif” (1999: 608).

Ageri denez, nire proposamenean erakusle deklinatua da, osorik (*-han*), gramatikalizatzen dena. 2006ko artikulua batean landu nuen hipotesi hau.

3.2. Teleskopio berriak, testu zaharrak

Aurreko azpiatalean esan bezala, planeta ezezagun bat “berreraiki” zuten astronomoek, matematika lagun. Izenburu argigarria du 1846ko Le Verrieren artikulua batek: “Sur la planète qui produit les

anomalies observées dans le mouvement d’Uranus. – Détermination de sa masse, de son orbite et de sa position actuelle” (bibliografiarako, ik. Molina, 2017). Hizkuntzalariok, berriz, fonetika-morfologia lagun, kontsonante desagertu bat “kalkulatu” dugu, hasperena.

Baina bi alorren arteko paraleloa edo, hobeki esanda, hemen aztertu ditudan bi auzien arteko paraleloa ez da hor bukatzen. Le Verrieren kalkuluak erabiliz eta haren eskariari jarraikiz —George Airy Erret Astronomoak ez zion abegi bera egin Adams gaztearenari—, Johann Galle astronomo alemaniarrek planeta ezezagunaren bilaketari ekin zion. Baita aurkitu ere. Teleskopioa hara zuzendu eta Le Verrieren kalkulaturiko tokian zegoen:

The Planet whose position you have pointed out *actually exists*. The same day I received your letter, I found a star of the eighth magnitude which was not shown on the excellent chart (drawn by Dr. Bremiker) [...] The observations made the following day determined that this was the sought-for planet [Gallek Le Verrieri bidali gutuna, 1846ko irailaren 25ean; *apud* Grosser, 1962: 119].

Neptuno izena jarri zioten.

Polemika publiko handi xamarra piztu zen izendapenaren harira, sumindura nazionalistek eta garaiko egunkariak hauspotuta, aurkikuntzaren egiletasuna esleitzeari garrantzizko irizten ziotenen artean. Le Verrier frantsesaren eta Adams ingelesaren artean, ordea, bizi guztirako adiskidantza ernatu zen elkar ezagutu zutenean, bata besteari zioten miresmenaren eta aitortzaren seinale (Grosser, 1962: 123-143).

Hizkuntzaren diakronian ari garenok ez dugu teleskopiorik. Are gehiago, gure berreraiketazko proposamenak berrets litzakeen tresnarik eraikitzeko aukerarik ere ez dugu: gure teleskopioak testu zaharrak baitira, eta haien existentziaren (eta eskuragarritasunaren) menpe dago gure hipotesien froga enpirikoa.

Espazioan urrutira begiratzeko astronomoek teleskopioak erabiltzen dituzten bezala, hizkuntzetan urrutira (hots, denboran urrutira) begiratzeko testuak erabiltzen ditugu guk. Teleskopio berri bat, irismen handiagoko bat eraikitzeko modua aurkitzen dutenean, espazioko muga berriak ikuskatzeko leiho berri bat irekitzen dute astronomoek. *Ikusezinen astronomia* delakoaren ariketa praktikotengabean bizi dira: arrazoiaren eta kalkulu matematikoaren begiekin irudikatutako errealitateak teleskopio berriek ekartzen dituzte haien ikus-eremura. Batzuetan, diakronistek ere zorte hori dugu.

Fernando Maioraren lan eskergari esker, euskal testuen ortzi-muga zabaldu ahal izan dugu: inoiz osatuko ez den puzzle bat bailitzan, orain arte ilunpean zeuden eremuak argitu ditu Maiorak; teleskopioaren faltan, lupa xumearekin arakatuz artxibategietako agiri ahaztuak. Bere lan maratzaren balioaren lekuko ona da 1554ko esalditxo hau (Maiora, 2011: 48):

(6) *senarrary porchara neurehan porchara eguyten deraut*

Honela ulertu behar dugu euskara batuan: *senarrari bortxara, neurean [neure etxean] bortxara egiten dit!* Testu horretan pertsona bat kexu da, bere etxean bertan aguazilaren aginduz mandoa⁴ bortizki bahitu diotelako. Ageri denez, interesatzen zaigun hitza *neurehan* hori da: nire ustez, inesiboko *neurean* sintagmaren forma zaharra dugu, hasperen eta guzti. Hortxe dugu 2006ko nire lanean berreraikitako *-han*. Aurkitu dugu gure Neptuno, aurkitu dugu gure hasperena.

4. Ondorioak

Nabarmena denez, datuak ez dira inoiz nahi bezain osoak. (6)-ko *neurehan* horrek (5a)-n **etxe*han berreraikitakoaren lekukotza eskaintzen digu; ez dugu, egia da, (5b)-ko ereduaren ordezkariarik. Alabaina, aski datu da, nire ustez, gramatikalizaturiko erakuslearen azalpenaren alde egiteko: inork ez du zalantzan jartzen bokalez bukatutako hitzetan (*etxe, mendi...*) zein kontsonantez bukatutakoetan (*lan, atal...*) inesiboko atzizkia bat eta bera denik. Horrela, Jacobsenen proposamena behin betiko bazter dezakegu.

Berreraiketa ariketa konkretu horretatik harago, dena den, beste ekarpenik ere egin du artikulua honek: zientziaren alor ezberdinetan pentsatzeko moduak antzekoak izan daitezkeela erakutsi dugu adibide horrekin. Lehenago ere egin zuen Mitxelenak gisa bertuko konparaziorik; hizkuntzalaritza

⁴ Epaiketaren gaztelaniazko bertsioaren arabera, aski argi dago *senar* hitzak ‘mando’ esanahia duela: *gazit. macho* hitzarekin itzulita dago eta horixe da, mandoa, jabeari konfiskatu nahi zaiona. *OEHN* ez dago ‘mando’ esanahia dokumentatuta *senar*-entzat, baina bai bigarren adiera bat, “2. (SP, DV, H). Macho de un corchete. “*Kurtxeta senharra, crochet à boucle*” SP”, hitzak inoiz bestelako adierak izan zitzaizkeelako seinale.

diakronikoa zientzia naturalekin konparatuz ongi esan zuen bezala, diakronistek *atzeranzko iragarpenak* egiten ditugu (1963: 20):

Es cierto que la previsión en lingüística diacrónica tiene fundamentalmente un sentido: es una previsión del pasado [...] al contrario de lo que ocurre en las ciencias naturales, donde se trata por lo general de previsión en sentido propio, de previsión del futuro [...] lo esencial es que hay previsión («predictability») y que se trata de una previsión científica, dentro de los estrictos límites que le han sido asignados, no una mántica que dependa de dones individuales de intuición. Y su validez, dentro siempre de esos límites, ha sido y sigue siendo confirmada por la experiencia.

Hortaz, ondorio orokor gisa, esan daiteke diakronisten metodoaren balioztatze edo homologatze etengabean ekarpen bat gehiago baizik ez dela izan hemengo hau. Alde horretatik, indoeuropeazko laringalen berreraiketaren adibide klasikoaren ildo berean kokatzen da hemen kontatu dudana: Saussurek 1879an aitzin-indoeuropeerako berreraikitako laringalak hititazko idazkietan topatu zituen, 1927an, Kuryłowiczek (Trask 2015: 243-246). Berreraikitzen denaren sakontasun kronologikoari begiratuz gero, askoz adibide apalagoa da gurea —indoeuropeazko laringalen kasuan duela 3000 mila urte baino gehiagoko egoera berreraikitzen da!—, baina ongi erakusten du funts metodologiko sendoa dutela Mitxelenak hizpide dituen atzeranzko iragarpen horiek, eta ez dutela inongo zerikusirik zori hutsarekin edo unean-uneko zalearen apetarekin.

5. Laburpena eta etorkizuneko ikerketarako ildoak

Aurreko ataletan, Jacobsenen proposamenaren kritika egin dut: hark eta haren jarraitzaileek proposaturikoaren aurka, ez dut *-gan* berreraiki euskararen inesibo singularra; horren ordez, artikuluen gramatikalizazio bide ezaguna gogora ekarri eta epentesia eragiten duen kontsonantea hasperena izango zela aldarrikatu dut.

Berreraiketa proposamen horrekin batera, astronomian XIX. mendean izandako aurkikuntza handienetako batek ere pentsatzeko modu berberei segitu ziela erakutsi nahi izan dut. Bi auzien arteko ibilbide paraleloa nabarmendu dut horrela, eta berreraiketa metodoaren balioa berretsi.

Berrespena bi aldetikoa da, hortaz: batetik, hizkuntzalaritzaren eta filologiaren lanabesetatik atera gabe, 2006an maila teorikoan berreraikitako elementu batentzat froga positiboa eskaini digulako gerora, 2011. urtean, agerturiko testu batek; bestetik, diziplina-arteko paralelo bat bilatu zaiolako inesibo mugatuaren diakroniaren arazoari, hizkuntzen berreraiketa metodoan zein astronomian —Neptunoren aurkikuntzan, kasu honetan— irregulartasunek duten garrantzia nabarmenduz.

Deklinabide mugatuaren berreraiketa modu horrek bestelako auziei ere irekitzen die bidea: ondorio sakonak izan ditzake ez bakarrik singularreko deklinabidearen berreraiketarako, baizik eta baita pluralekoetarako ere: *mendietan* moduko inesibo sintagma pluraletan **mendihetan* da berreraikiko genukeena. Horren aldeko datu gisa erabil daitezke Erdi Aroko toponimiako hainbat datu, hala nola 1025eko *Erroheta*, 1089ko *Sagarzaheta* etab. Horietan ere hasperen galduaren lekukotasuna dugu.

Hori guztia lotua dago oraindik egiteko dugun Erdi Aroko testu zaharren arakatzeko sistematikoarekin. Hizkuntzalarion esku ez badago ere (ez zuzenean, behintzat), horixe izan daiteke etorkizuneko lanen zerrendan ezarri beharreko puntuetako bat: astronomo, fisikari eta optikoek teleskopio berriak diseinatzen diharduten bezalaxe, guk gure artxibategietako agirien katalogazioa eta digitalizatzea behar dugu sustatu. Maiorarena bezalako inurri-lanak ohoratze modu ezin hobea litzateke erakundeek ondare historikoa begiratzeko lan hori bere gain hartzea. Digitalizazio lan horrek izugarri erraztuko luke artxibategietako idazki zaharren transkripzio sistematikoa; horrek, eta *Transkribusen* moduko baliabide informatikoak erabiltzeak.⁵ Ez dugu itxaropenik galdu behar: altxor linguistiko zahar-berrien aurkikuntzaren ateetan gaude.

6. Erreferentziak

Chesterman, A. (1991): *On definiteness: a study with special reference to English and Finnish*, Cambridge University Press, Cambridge.

de Rijk, R.P.G. (1981): “Euskal morfologiaren zenbait gorabehera”, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, Bilbo, 83-101.

⁵ Vienako Unibertsitateko Hannes Fellner doktoreari eskertu beharra diot egitasmo honen berri emanik. Innsbruckeko Unibertsitateko *Digitisation and Digital Preservation group* izeneko taldeak garatu du baliabidea eta esteka honetan dago eskuragarri: <<https://transkribus.eu>>

- Etxepare, R. (2013), “Basque primary adpositions from a clausal perspective”, *Catalan Journal of Linguistics*, 12, 41-82.
- Grosser, M. (1962): *The discovery of Neptune*, Harvard University Press, Cambridge.
- Himmelman, N. (2001): “Articles”, in M. Haspelmath, E. König, W. Oesterreicher eta W. Raible (arg.), *Language Typology and Language Universals: An International Handbook, Handbooks of Linguistics and Communication Science*, Walter de Gruyter, Berlin-New York, 20.1(1), 831-841.
- Jacobsen, W. H. (1977): “The Basque locative suffix”, in W. A. Douglass, R. W. Etulain eta W. H. Jacobsen (arg.), *Anglo-american contributions to Basque studies: essays in honor of Jon Bilbao*, Desert Research Institute Publications on the Social Sciences, Reno, 13, 163-168.
- Lafon, R. (1999): *Vasconiana*, IKER 11, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Laury, R. (1997): *Demonstratives in interaction. The emergence of a definite article in Finnish*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam/Philadelphia.
- Lyttleton, R. A. (1968): *Mysteries of the Solar System*, Oxford University Press, Oxford.
- Maiores, F. (2011): *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases*, autoedizioa.
- Manterola, J. (2006), “-a euskal artikulua definituaren gainean zenbait ohar”, *ASJU*, 40, 651-676.
- Mitxelena, K. (1961-1977): *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Mitxelena, K. (1963): *Lenguas y protolenguas*, Universidad de Salamanca, Salamanca.
- Molina, S. (2017), “El método de análisis y síntesis y el descubrimiento de Neptuno”, *Estudios de Filosofía*, 55, 30-53.
- OEH = Mitxelena, K. (1987-2005): *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Oñederra, M. L. (2005): “Fonologiaren mugak: *alabea* eta *birjinak elexan*”, in P. Etxeberria eta H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, IKER 17, Euskaltzaindia, Bilbo, 379-397.
- Trask, R.L. (1997): *The history of Basque*, Routledge, London & New York.
- _____ (2015): *Historical Linguistics (Third edition)*, Routledge, London & New York.
- Ultan, R. (1978): “On the development of a definite article”, in H. Seiler (arg.), *Language Universals, Papers from the Conference held at Gummersbach/Cologne, Germany, October 3-8, 1976*, Gunter Narr Verlag, Tübingen, 249-265.

7. Eskerrak

Lan hau Eusko Jaurlaritzako «Hizkuntzalaritza historikoa eta euskararen historia» [GIC.IT486-10], Madrilgo Ministeritzako «Monumentae Linguae Vasconum (V) [FFI2016-76032-P] eta UPV/EHUko UFI11/14 ikerketa taldeei esker egin ahal izan da.

Artikulu honetako ideietako batzuk *Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia* doktorego programaren barruan antolaturiko mintegi batean plazaratu nituen 2018ko apirilaren 18an, Gasteizko Letren Fakultatean. Mintegiaren antolatzaileari, Xabier Artiagoitiari eskertu nahi diot aukera hori eskaintzeagatik.

José Ignacio Hualderi eskertu nahi diot testua irakurririk eta aldaketaren bat iradokirik; Ricardo Gómezi ere eskertu nahi diot egin duen irakurketa xehea eta hainbat iradokizun eta zuzenketa egiteagatik. Bi iruzkingile anonimok adierazitako zuzenkizunak ere zinez baliagarriak izan dira testua hobetzeko eta hizkuntzalaritzatik kanpoko jendearentzat ulergarriago egiteko. Okerrak nire.